

ARNAS INFEKZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINITZA

Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)

2024-2025 denboraldia
(2024ko irailaren 30etik 2025ko irailaren 28ra)

16. astea (2025eko apirilaren 14tik 20ra)

Gripe-birusaren zirkulazioak beheranzko joerarekin jarraitzen du, ABSrenak behera egin du aurreko astearekin alderatuta eta COVID-19 kasu kopurua balio baxuetan mantentzen da.

- *Aste honek jaiegun bi dauzka, eta honek eragin zuzena du datuen baliozkotasunean, bereziki Lehen Mailako Arretatik jasotako datuetan.*
- Lehen Mailako Arretako (LMA) sarean AIA tasa 191,7 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (306,0/100.000 aurreko astean).
- Lehen Mailako Arretan, gripe-sindromearen tasak behera egiten jarraitzen du. Bronkiolitisaren tasak behera egin du aste honetan eta COVID-19arena balio baxuetan mantentzen da.
- Mikrobiologiako laborategira bidalitako 14 lagin jagoleen % 78,6 baieztatu da, SARS-CoV-2 bi eta gripe-birus bat detektatu direlarik, baina ez ABSik.
- Osakidetza ospitale-sarean AIA larriaren tasa 10,6 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (12,2/100.000 aurreko astean).
- EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sisteman, aste honetan, 27 gripe-birus, 38 SARS-CoV-2 eta 11 ABS erregistratu dira.

Zaintza sindromikoa


Zaintza honen bidez, LMA sareko AIA kasuen tasa estimatzen da Historia Kliniko Elektronikoko jasotako informazioaren bitartez eta GNS-10 kodeak erabiliz. Aste honetan hautemandako AIaren intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 191,7 kasukoa izan da (306,0/100.000 aurreko astean). Lurralde historikoka, tasa 176,4/100.000 izan da Araban, 197,5/100.000 Bizkaian eta 189,6/100.000 Gipuzkoan.

AIaren intzidentzia-tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Lehen Mailako Arreta-sarea. 2024-2025, EAE




Adin-taldearen arabera, AIaren tasa altuena urte batetik beherakoen adin-taldean eman da 1906,3 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 1-4 eta 5-14 urteko adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 974,9 eta 249,2 kasurekin, hurrenez hurren.

AIaren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera
Lehen Mailako Arretako sarea. 2024-2025, EAE



AlAekin lotutako Prozesu Arin Automugatuaren (PAA, *Hotzeria arrunta* eta AlAren sintomaren bat duen *Sukarra*¹) zaintzaren helburua erizaintzako langileek artatzen dituzten prozesu horien bilakaera ikustea da. Aste honetan tasa 100.000 biztanleko 66,5 kasukoa izan da (112,3/100.000 aurreko astean).



Erakunde Sanitario Integratuaren (ESI) arabera intzidentziari dagokionez, tasek behera egin dute ia ESI guztietan aurreko astearekin alderatuta.


AlAren intzidentzia-tasak eta tasen arrazoia ESIaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2024-2025, EAE

ESI	Tasa 16. astea	Tasa 15. astea	Tasen arrazoia (% 95 KT)
Arabako ESI	193,5	292,2	0,66 (0,60-0,74)
Arabar Errioxako ESI	272,1	408,1	0,67 (0,43-1,04)
Barakaldo-Sestaoko ESI	178,4	271,9	0,66 (0,56-0,78)
Barrualde-Galdakaoko ESI	215,6	328,4	0,66 (0,60-0,72)
OSI Bilbo-Basurtuko ESI	210,5	353,2	0,60 (0,54-0,65)
Ezkerral.-Enkart.-Gurutzetako ESI	175,9	308,8	0,57 (0,49-0,66)
Uribeko ESI	164,3	258,3	0,64 (0,56-0,73)
Bidasoako ESI	172,2	278,4	0,62 (0,50-0,77)
Debararrenako ESI	195,6	326,9	0,60 (0,49-0,74)
Debagoienako ESI	162,0	285,1	0,57 (0,45-0,72)
Donostialdeako ESI	177,6	285,4	0,62 (0,56-0,69)
Goierrri-Urola Garaiaiko ESI	208,0	325,5	0,64 (0,54-0,76)
Tolosaldeako ESI	218,2	328,1	0,67 (0,54-0,82)

¹ Informazio gehiagorako kontsultatu [AlAaren jagoletzaren metodologia](#)

LMako gripe-sindromearen tasa 1,7 kasu 100.000 biztanleko balioraino jaitsi da (4,3/100.000 aurreko astean). Bronkiolitisaren tasak (2 urtetik beherakoetan) ere behera egin du eta 100.000 biztanleko 135,4 kasutan kokatu da (188,8/100.000 aurreko astean). COVID-19arena baxu mantentzen da eta 100.000 biztanleko 1,5koa izan da (2,0/100.000 aurreko astean).


Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2024-2025, EAE



Lagin jagoleen diagnostiko mikrobiologikoa

Zaintza honetan, astero, AIAren sintomak dituzten kupo jagoleetako pazienteen artean gutxienez bost kasu hautatzen dira sistematikoki, eta diagnostiko mikrobiologikorako lagin bat hartzen zaie. Aste honetan, AIArako erreferentziako mikrobiologiako laborategian 14 lagin jagole aztertu dira eta horietatik % 78,6 baieztatu dira. 2 SARS-CoV-2 eta gripe-birus bat (AH3) atzeman dira, baina ez ABSik. 3 errinobirus, 2 adenobirus eta 2 parainfluenza birus ere detektatu dira.

AIA intzidentzia-tasa LMAN eta sare jagoleen detektatutako arnas birus kopurua, aste epidemiologikoaren arabera. 2024-2025, EAE



Gripe-birusaren positibotasuna % 7,1era jaitsi da aste honetan (% 8,8 aurreko astean). SARS-CoV-2aren positibotasunak gora egin du % 14,3an kokatuz (% 2,9 aurreko astean) eta ABSrena % 0,0an mantentzen da (aurreko astean bezala). Errinobirusaren positibotasuna % 21,4koa izan da (% 20,6 aurreko astean).

Positibotasunaren ehunekoa mikrobiologiako laborategira bidalitako lagin jagoleetan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2024-2025, EAE


	16. astea		15. astea		2024-2025 hasieratik	
	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	1	7,1	3	8,8	521	31,0
SARS-CoV-2	2	14,3	1	2,9	35	2,1
ABS	0	0,0	0	0,0	70	4,2
Metaneumobirus	1	7,1	6	17,6	53	3,2
Parainfluenza	2	14,3	4	11,8	66	3,9
Adenobirus	2	14,3	1	2,9	71	4,2
Errinobirus	3	21,4	7	20,6	285	17,0
Urtaroko CoV	0	0,0	2	5,9	87	5,2
Enterobirus	0	0,0	2	5,9	42	2,5

AIA larria (AIAL) Osakidetzako ospitale-sarean

Zaintza sindromikoa


AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak Osakidetzako ospitale-sarean artatutako AIaren prozesu klinikoak dira, GNS-10 kodeen bitartez astero Historia Kliniko Elektronikotik erarortzen direnak. AIAL tasa 10,6 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (12,2/100.000 aurreko astean), 11,2/100.000 gizonetan eta 10,1/100.000 emakumeetan.

AIAL tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2024-2025, EAE




Adin-taldearen arabera, AIAL tasa altuena 64 urtetik gorakoen adin-taldean eman da 100.000 biztanleko 34,5 kasurekin, ondoren urte batetik beherakoen eta 1-4 urtekoen adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 29,6 eta 8,0 kasurekin, hurrenez hurren.

**AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoen arabera.
Osakidetza ospitale-sarea. 2024-2025, EAE**



Gripearen diagnostiko-kodeekin (J09-J11) erregistratutako ospitaleratzeen tasa 0,4koa izan da 100.000 biztanleko (1,0/100.000 aurreko astean), ABSren kodeekin (J12.1, J20.5 y J21.0) ospitaleratutakoena 0,1ekoa 100.000 biztanleko (0,0/100.000 aurreko astean) eta COVID-19aren kodearekin (U07.1) ospitaleratutakoena 0,2 kasukoa 100.000 biztanleko (0,3/100.000 aurreko astean).

**Tasa por temporada y semana epidemiológica.
Red hospitalaria de Osakidetza. 2024-2025, CAE**




AIAL laginen diagnostiko mikrobiologikoa

Atal honetan, Osakidetzako ospitale-sarean AIAL kasuei egindako analisi birologikoen emaitzak erakusten dira. Gripe-birusaren positibotasunak behera egin du aste honetan eta % 5,8an kokatu da (% 13,3 aurreko astean). ABSrena % 3,0ra igo da (% 1,2 aurreko astean) eta SARS-CoV-2aren positibotasuna % 2,2ko izan da (% 2,5 aurreko astean).

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko lagin kopurua eta hauen positibotasuna (%) AIAL kasuen laginetan arnas birus motaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2024-2025, EAE

	16. astea		15. astea		2024-2025 hasieratik	
	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)
SARS-CoV-2	184	2,2	198	2,5	7825	2,1
Influenza	137	5,8	165	13,3	7080	24,5
ABS	134	3,0	165	1,2	6586	11,3

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko AIALen laginen positibotasun portzentaia arnas-birus motaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2024-2025, CAE




Arnas birusen detekzioak IMSn

Zaintza honetan, Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko mikrobiologiako zerbitzuek zirkuitu jagoletik kanpo jakinarazitako gripe-birusaren eta ABSaren lagin positiboak biltzen dira. Sistema honetan 27 gripe-birus, 38 SARS-CoV-2 eta 11 ABS detektatu dira azken astean.

Aste honetan detektatutako 27 gripe-birusetatik, 18 A motakoak izan dira, 8 A(H3) eta bat A(H1)pdm09. 2024/40 astetik 9164 detekzio erregistratu dira, 7162 (% 78,2) A motakoak eta 2002 (% 21,8) B motakoak. Azpitipatutako A motako 3571 birusetatik, 2421 (% 67,8) A(H3) eta 1150 (% 32,2) A(H1)pdm09 izan dira.

Asteko SARS-CoV-2, influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2024-2025, EAE



Metodologiari eta beste aspektu batzuei buruzko informazio gehiago [Osasun Saileko webgunean](#) eta ondorengo esteka hauetan: [SiVIRA](#) (estatukoa), [Flu News](#) (Europa, gripea), [FluNet](#), (Mundua, gripe), [OPS](#) (Amerika, gripea), [CDC](#) (AEB).

2025eko apirilak 23

Zaintza Epidemiologikoa
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza